



Olibondoen sendotasuna

2023ko urriaren 7tik gaiari nola heldu jakin gabe ibili naiz. Izan ere, zaila da emozionalki hainbeste ukitzen zaituen zerbaiten inguruan distantzia apur batekin jardutea; agian ezinezkoa da. Palestinako herriaren genozidio telebistatuak ezintasuna, txundidura, amorrua, eta hitzetan jartzeko zailak diren beste hamaika sentimendu azaleratu dizkigu askori. Horietako hainbat agerian geratu dira mundu mailan izandako elkarretaratze eta manifestazioetan. ARGIAk argitaratutako *Ez gure izenean* zerbaki berezian, modu xehean adierazi ziren gatazkaren egungo egoerara heldu bitarteko mugarri nagusiak, eta horren inguruko iritzi-artikuluak ere kontaezinak dira.

Begi bistakoa da azken zazpi hamarkadotan Israelek entzungor egin diola Nazio Batuen Erakundeak (NBE) 1947an argitaratutako ebazpenari (baita atzetik etorri direnei ere). Gorreria horri kritika egiteaz gain, sektore kritikoetatik seinalatu izan dira NBEk gai honekiko erakutsitako konpromiso txikia eta bere baitan dauden azpi-erakunde desberdinen arteko inkoherentzia. Inkoherentzia horien seinale dira, esaterako, NBEko Segurtasun Batzordearen azken erabakiak, edota erakunde bereko errefuxiatuen agentziaren jardunbidea.

Urteetan identifikatu ahal izan diren interes geostrategikoen artean, lankidetzak ekimen ugari jarri dira martxan Palestinako herriari laguntzeko, bai nazioarteko erakundeetatik, bai adminis-

Sentimendu
kontrajarria izan ohi
dut: laguntza ez da
gatazka konpontzeko
tresna, eta aldi berean,
hori gabe, egoera
larriagoa zatekeen

trazioetatik (zentralak eta deszentralizatuak), bai askotariko Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeetatik, baita brigadista eta bestelako boluntarior-tzetatik ere. Iritsi ahal izan den laguntza hori oinarritzko beharizanetan, laguntza humanitarioan edota intzidentzia politikoan oinarritu da, besteak beste. Argi dago egindako horiek ez dutela gatazka konpontzeko gaitasunik izan; asko, ez ziren helburu horrekin jaioko, ziurrenik. Sentimendu kontrajarria izan ohi dut: laguntza ez da gatazka konpontzeko tresna, eta aldi berean, hori gabe, egoera larriagoa zatekeen.

Gurean, otsailaren 15ean onartu zen Lankidetzak eta Elkartasunari buruzko Euskal Lege Proiektua, kontsentsu zabalarekin, gainera. Kritikak izan ditu aurkeztu arteko bidean, besteak beste, finantzatzeko diren proiektuetarako



IRATI LABAIEN EGIGUREN
EHU-KO IRAKASLEA

epe luzeko begiradaren beharra, edota enpresa eta lankidetzako agente ez tradizionalen parte-hartzeko moduen eta baldintzetan dauden zalantzak tarteko. Legearen edukien indarguneen artean, egungo eredu ekonomiko kapitalistari egindako aipamena azpimarratuko nuke, eta zehazki, horrek sortzen duen ekoizpen- eta kontsumo-eredu ez jasangarriaren onarpena. Are gehiago, onarpen horri lotuta, testuan zehazten da egungo testuinguru konplexu honi aurre egiteko "euskal eragile instituzional eta sozial guztien" inplikazioa nahitaezkoa dela. Eta zentzu horretan, politiken artean egon daitezkeen inkoherentzia eta gatazkek txikitzeko beharraz ari da legea; nolabait, gainerako sailletako jardunbideek beste lurraldeetan izan ditzaketan eraginaz jabetzeko.

Askotan pentsatzen dut zer gertatuko litzatekeen lege horretan aipatzen diren giza eskubideak, feminismoa, edota ikuspegi ekosoziala bestelako esparruetan txertatuko balira, inkoherentziak identifikatzeko bokaziotik haratago. Hainbatetan lankidetzak albo-politika moduan tratatu izan da, hots, politika biguna balitz bezala, krisi garaietan baztergarria dena. Segurtasunari eta merkataritzari loturiko bestelako politika gogorak azken horiekin lerrokatzeak sendotasuna emango lioke orotara egiten denari. Palestinako herriak sektore guztietatik merezi duen tratu uniforme eta sendoa bezala, haien ikur diren olibondoen parekoa. ●